

---

## KOSTUEN EGITURA

Huachipato enpresak hainbat kostu izango ditu. Alde batetik, kostu finkoak eta beste aldetik, kostu aldakorak daude:

- Kostu finkoak: bulegoaren alokairua, soldatak, garraio-elementun erosketa, hauen aseguru eta aplikazioa zenbait tokitan publikatuta egoteagatik hilabetean ordaindu beharrekoa.
- Kostu aldakorak: kostu hauek gorabeherak izango dituzte zenbat erabiltzen ditugunaren arabera. Hala nola argia, bulegoan zenbat eta denbora gehiago egon argi-kostua haundiagoa izango da, horrek esan nahi du lan asko daukagula. Beste aldetik gasolina, baita ere izango da aldakorra, zenbat eta kilometro gehiago egin orduan gasolina gehiago erabiliko dugu. Ez hori bakarrik, gasolina litro batek prezio aldakorra dauka urtean zehar, batzuetan garestiago egongo da eta beste batzuetan merkeago.
- Eskala ekonomia: Bezeroak erakartzeko deskontu batzuk egngo ditu, gure ekonomia haunditzeko eta publizitate gehiago edukitzeko. Haieran deskontuak kantitatearengatik izango dira, eskaera handiak eginez gero prezioa gutxituko da. Enpresa handitzen joan ahala deskontu mota gehiago edukiko ditugu, hala nola, zenbait zerbitzuetan deskontua aplikatuko dugu.

